

**"handik" euskal herrira**

*Erljioak, jende asko kezkatzen du gutartean oraindik. Ez dakigu zorionez ala zoritxarrez esan. Segun non, noiz eta zertarako jakin behar.*

*Rusiako Partidu Komunistak ere zerbait esan du azken aldian berak duen erlijio kezka hon-taz. Horren berri ematen da ondorengo horrial-deetan.*

*Baina gaurko pentsakizunek badute lehenal-dian errorik, Europa aspalditxotik zaharra izan bait da. Eta zahartzaroak —nahiz noizbehinka batbatetako gaztetu— historia bat ekarri ohi du atzetik.*

*Marx, haren eta besteren marxismoa, erlijioa eta beste erlijioa, denak historiatik datoz. Hori argitzen saiatuko da hemen idazlea. Baina nonbai-teko erlijioaz ari garenez, bertakoa ere gogoan izan nahi litzake. Asmo honekin ematen dira Eus-kal Herriko erlijio kritikaren berriak.*

*J. I.*